

| Helburu didaktikoak  | Ebaluazio adierazleak  |
|--|--|
| 1. Gure arbasoen gizartea berreraikitzeke historiak dituen berariazko tresnei eta adierazpen-moduei buruzko ezagutzak zuzen erabili, gaiari lotutako zereginei erantzuteko.  | <p>1.1. Informazio-iturriak motaren eta jatorriaren arabera sailkatu ditu.</p> <p>1.2. Informazio-iturriak eta horiek ematen duten informazioa erlazionatu ditu.</p> <p>1.3. Iturriak ematen duen informazioari buruzko galderak zuzen erantzun ditu.</p> <p>1.4. Aroei eta gertaerei buruz denbora-lerroak ematen duen informazioari buruzko galderak zuzen erantzun ditut</p>  |
| 2. Indagazio historikoaren urratsak aplikatuz emandako arkeologia-aztarnei buruzko hipotesiak formulatu, datuetan edota ebidentzietan oinarrituz.  | <p>2.1. Emandako informazio-iturriak aztertuz hipotesiak direnak hautatu ditu.</p> <p>2.2. Emandako informazio-iturria aztertuz, horri buruzko hipotesia egin du.</p>  |
| 3. Historiaurreko eta Antzinaroko nahiz gaur egungo bizimoduen ezaugarrien arteko erlazioak adierazi.  | <p>3.1. Historiaurreko garaietako kontzeptuak zuzen sailkatu ditu.</p> <p>3.2. Antzinaroko gizartearen deskribapenetan, erantzun egokiak hautatu ditu.</p>   |
| 4. Hainbat euskarritan (mapa historikoak, denbora-lerroak, hainbat testu eta bideoak) eskainitako informazio-iturriak erabiliz, elkarlanean, Historiaurreko eta Antzinaroko bizimoduari buruzko informazioa eskuratu eta eduki-fitxetan, mapetan nahiz denbora-lerro digitaletan erregistratu. | <p>4.1. Emandako informazioa erabiliz, ikasleak eskatzen zaizkion datuak bilatu eta jaso ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Eskatutako atalei dagokien informazioa Infogunean aurkitu eta hautatu du.</li> <li>- Atal bakoitzerako ideia nagusia erregistratu du.</li> </ul> <p>4.2. Denbora-lerro digital bat egin eta partekatu du, eskainitako informazioa erabiliz:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Emandako gertaerak ongi antolatu ditu.</li> <li>- Elementuak egoki kokatu ditu.</li> <li>- Ikonoak eta izenak dagozkien lekuetan zuzen kokatu ditu.</li> <li>- Txantiloia esteka ongi kopiatu du eta denbora-lerroa sortu du.</li> <li>- Sortutako denbora-lerroa hartzaileari helarazi dio.</li> </ul> |
| 5. Hainbat euskarritan emandako informazioan oinarrituta, hainbat lurralde eta garaitako bizimoduari buruzko ahozko diskurtsoa sortu   | <p>5.1. Emandako irizpideen arabera eskatutako ahozko diskurtsoa egoki egin du.</p>  |